

Gorka Moreno Marquez

EHUKO SOZIOLOGIA IRAKASLEA

Bizkarrezurra hautsi zaigu



ure gurasoen garaian ohikoena bizitza guztirako enplegua izatea zen. Lanaldia astelehenetik ostiralera zen, 40 ordukoa; urtean 11 hilabetekoa, bizitzaren bi heren ematen zuten lanean.

Era berean, enpleguak soldata duina eta gizarte eskubideak bermatzen zituen gehienetan. Garai hartan oso ohikoa zen behe-behetik hastea lantegi barruan eta urteak pasa ahala postu hobeagoa lortzea eta noski, soldata hobeagoa. Garapen guzti honek, oso laburki azalduta bada ere, ondorio oso nabariak izaten zituen: enpleguak segurtasuna eskaintzen zuen lan ibilbidean, goranzko bide lineala eta metatua ahalbidetzen zuen. Hortaz, enpleguan hobetu ahala bizitzan ere hobetzen zen.

Hauen seme-alaben garaian aldiz, gure garaian alegia, lehen aipatutako ezaugarri gehienak hankaz gora daude. Horrela, gaurko lanaldiak askotan hiruzpalau ordukoak izaten dira –batzuk ordu batekoak ere!– eta askok nahi izango lukete urtean 11 hilabetez lan egitea. Honi “lan-bizitza” asko murriztu dela gehitu beharko genioke bai behetik –ikasketak– zein goitik –aurrejubilazioak–. Ondorioak nabariak dira, gero eta zailagoa da langabeziarako diru-laguntza jasotzeko kotizazio



INIGO AZKONA

nahikoa lortzea, gero eta zailagoa ere urte asko kotizatzea pentsio on bat bermatzeko, eta borobiltzeko, guzti honi *mileurismoa* gehitu behar zaio. Pentsa daitekeenez, enplegu mota honekin oso zaila da egonkortasuna lortzea, ez da gizarte segurtasunik ahalbidetzen eta iraganean goranzko lan ibilbidea eta lineala baldin bazen ere, gaur egun gorabehera handikoa da, hurrengo enplegua ez delarik zertan bestea baino hobeia izan.

Enpleguak lehen gure bizitzan zuen eragina desitxuratu egin da, beraz. Eragina izaten jarraitzen du, baina eskaintzen diguna ez da egonkortasuna, kontrakoa baizik, eta lehen gure bizitzan ardatza eta bizkarrezurra bazen, orain askotan indar hori galdu du. Adibidez: lehen gure gurasoei zer ziren galdetzen zenienean, igeltseroa edota erizaina zela esango zizuten, dudarik gabe. Gaur, aldiz, galdera bera botata zer erantzungo du urtean laupazbost lanpostu eta ofizio ezberdin izan dituenak? Baldintza hauetan zaila da etorkizunean pentsatzea, eta lehen enpleguak hiritartasuna *blindatzen* bazuen ere,

gaur egun hiritartasuna bera da gazte askorentzat zalantzan jartzen dena enpleguaren prebarikazioaren ondorioz. ■

« Enpleguak lehen gure bizitzan zuen eragina desitxuratu egin da. Eragina izaten jarraitzen du, baina eskaintzen diguna ez da egonkortasuna, kontrakoa baizik »

TXANDAN

Joseba Barandiaran



Hamabosgarrenean aidanez... Zuetako inork ba al daki munda

Hamabosgarrenean

duko hamabosgarren mendi garaiena zein den? Interneten irakurri dudanez Gyachung Kang du izena, Nepalen dago, noski, eta zortzi metro falta dugu hitzetik hortzera erabili eta ezagun izateko. Sistema metriko dezimalaren kapritxoz, hamalau dira (eta ez sei, hamar edo hoge) “munduko mendi garaienak”, “zortzimilakoak”. Pasabanek Manaslu igo duela eta, beste behin, mendizaletasuna produktu bihurtu dugula otu zait. Balentria egin duen lehen gizona, lehen emakumea,

lehen euskalduna, lehen... edozer. Lehen. Sherpa edo “porter” andanak inguratutako espedizioez, euren kultura edo bizi baldintzez, ezer gutxi dakigu; ikusi gabe nekez sinetsiko luke euskaldun arruntak. Geure presa, abiada, erronkak, zirku mediatikoa, obsesio txorota bertara eramanez ditugu, globalizazioa lagun, 1950an Herzog Annapurnan paratu zenetik. Tira, bertara eta Pirinioetako “hirumilakoetara” eta, Mont Blancera eta poloetara, eta... Mendizaletasun eta naturzaletasunaren izpiritua hamabosgarrenean dago, aidanez. Edo hogeigarrenean, edo milagarrenean, edo... nik dakita. ■